

UAOaren 67,2 artikuluarri jarraiki, akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.

Honako hau da artxiboaren identifikazio kodea:

De acuerdo con el art. 67,2 del ROP, la presente Acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión.

El fichero resultante se identifica con el siguiente código:

ggq2/e0xVgNtyGYPVOPj9Q4t/IF8/zHb6BxhiPXOV00=

Grabazioa URL honetan aurki daiteke:

La grabación está disponible en la URL:

https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.PLENOS.2021112601

VITORIA-GASTEIZKO UDALBATZAK 2021EKO AZAROAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL DÍA 26 DE NOVIEMBRE DE 2021

ALKATE-LEHENDAKARIA / ALCALDE-PRESIDENTE:

Excmo. Sr. D. Gorka Urtaran Agirre jauna (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

D. Iñaki Gurtubai Artetxe jauna (EAJ-PNV)
D^a. Ana Oregi Bastarrika andrea (EAJ-PNV)
D.^a Livia Claudia López Gutiérrez andrea (EAJ-PNV)
D. César Fernández de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV)
D.^a Miren Fernández de Landa Ruiz andrea (EAJ-PNV)
D. Raimundo Ruiz de Escudero Ezcurra jauna (EAJ-PNV)
D^a. Maider Etxebarria García andrea (PSE-EE)
D. Jon Armentia Fructuoso jauna (PSE-EE)
D^a. María Ángeles Gutiérrez Ondarza andrea (PSE-EE)
D. Borja Rodríguez Ramajo jauna (PSE-EE)
D^a Estibaliz Canto Llorente andrea (PSE-EE)
D. Igor Salazar Ochoa jauna (PSE-EE)
D. Félix González San Vicente jauna (EH BILDU GASTEIZ)
D^a. Rocio Vitero Perez andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D.^a Iratxe López de Aberasturi Saez de Vicuña andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Alberto Porras Conde jauna (EH BILDU GASTEIZ)
D.^a Amancay Villalba Eguiluz andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Xabier Ruiz de Larramendi Arana jauna (EH BILDU GASTEIZ)
D^a. Ainhoa Domaica Goñi andrea (PP)
D. Miguel Garnica Azofra jauna (PP)
D.^a Leticia Comerón Refojos andrea (PP)
D. Alfredo Iturricha Yániz jauna (PP)
D^a. Elisabeth Ochoa de Éribe Roman andrea (PP)
D. Óscar Fernández Martín jauna (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)
D.^a María Gema Zubiaurre Urquiere andrea (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)
D.^a Garbiñe Ruíz Noriega andrea (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)

UDALBATZAREN BEHIN BEHINEKO IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL ACCIDENTAL DEL PLENO:

D. Martín Gartzandia Gartzandia jauna.

Vitoria-Gasteizko udaletxean, 2021eko azaroaren 26an, goizeko 09:07ak zirela, udalbatza bildu da ohiko bilkuran eta lehen deialdian, Gorka Urtaran Agirre alkate jauna lehendakari zela, eta goian aipatzen diren zinegotziak bertan izanik. Bertan ziren, orobat, udalbatzaren behin behineko idazkari orokorra Martin Gartzandia Gartzandia jauna, zeinek ematen baitu bilkuran jazotakoaren fede.

Honako gorabeherak jaso dira:

- 9. gaia zerrendatik kanpo utzi da.
- 11. gaia 12. gaiaren ostean bozkatu da.
- Oregi Bastarrika andrea (EAJ-PNV), Armentia Frutuoso jauna (PSE-EE) eta Iturricha Yani jauna (PP) ez dira bertan egon 13. gaia bozkatzeko uanean.
- 11:44etik 12:17era, alkateak Etxebarria Garcia andrearen esku utzi du osoko bilkuraren burutza.
- Gutierrez Ondarza andrea (PSE-EE) ez da bertan egon 14. gaia bozkatzeko uanean.
- Comerón Refojos andrea (PP) ez da bertan egon 16. gaia bozkatzeko uanean.

Lehendakariak saioa abiarazi ondoren, Udalbatzak minutu bateko isilaldia egin du indarkeria matxistak hildako emakumeen oroitzapenez.

2021eko urriaren 20an eta 22an eta azaroaren 4an egindako bilkuren aktak irakurri eta onestea, **egindako bilkuraren akta irakurri eta onestea, eta AHO BATEZ onetsi dute bertan zeudenek.**

En la Casa Consistorial de la Ciudad de Vitoria-Gasteiz, siendo las 09:07 horas del día 26 de noviembre de 2021, se reunió en sesión ordinaria el Ayuntamiento Pleno bajo la Presidencia del Excmo. Sr. Alcalde, don Gorka Urtaran Agirre, con asistencia de los Sres. Concejales que más arriba se expresan, encontrándose asimismo presentes el Secretario General accidental del Pleno, don Martin Gartzandia Gartzandia, que da fe del acto.

Se hacen constar las siguientes incidencias:

- El asunto nº 9 se retira del Orden del Día.
- El asunto núm. 11 se vota tras el asunto núm. 12.
- La Sra. Oregi Bastarrika (EAJ-PNV), el Sr. Armentia Frutuoso (PSE-EE) y El Sr. Iturricha Yaniz (PP) no están en el momento de la votación del asunto núm. 13.
- El Sr. Alcalde delega la Presidencia de Pleno en el Sra. Etxebarria Garcia de 11:44 a 12:17.
- La Sra. Gutierrez Ondarza (PSE-EE) no está presente en el momento de la votación del asunto nº. 14.
- La Sra. Comerón Refojos (PP) no está presente en el momento de la votación del asunto nº. 16.

Abierta la sesión por la Presidencia, la Corporación guarda un minuto de silencio en recuerdo de las mujeres asesinadas por la violencia machista.

Como primer asunto del Orden del día, se somete a votación Lectura y aprobación de las Actas de las sesiones celebradas los días 20 y 22 de octubre y 4 de noviembre de 2021, **y queda aprobada por UNANIMIDAD de los presentes.**

Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:

https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.PLENOS.2021112601?ts=665

2. GAIA
ASUNTO Nº 2

**BEHIN BETIKO ONESTEA
ARABAKO TEKNOLOGIA
PARKEAREN (ST5 SEKTOREA,
GARAI BATEKO 11. SEKTOREA)
PLAN PARTZIALAREN
HAMARGARREN ALDAKETA**

**ASUNTO: APROBACIÓN
DEFINITIVA DE LA DÉCIMA
MODIFICACIÓN DEL PLAN
PARCIAL DEL PARQUE
TECNOLÓGICO DE ÁLAVA
(SECTOR ST5, ANTIGUO SECTOR
11)**

ERABAKI-PROPOSAMENA

Arabako Teknologia Parkearen (ST5 sektorea, garai bateko 11. sektorea) plan partzialaren 10. aldaketaren proiektua ikusi da, zeina aprobetxamenduen transferentziari buruzkoa baita. LKS Ingeniería S. Coop. enpresako kide M.D.d.C.G. arkitektoak idatzi zuen, Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologia Elkartegia S.Aren ekimenez, eta 2018ko martxoaren 26an sartu zen Gasteizko Udalaren erregistroan. Horrekin lotuta, honako gogoeta hauek egiten dira:

1995eko urriaren 11n argitaratu zen ALHAOn 11. sektorearen (Arabako Teknologia Parkea) hiri antolamenduko plan partzialaren testu bateginaren behin betiko onespina.

Plan partzial hori bederatzi aldiz aldatu da, eta azken aldaketaren behin betiko onespina 2009ko urriaren 19ko ALHAOn argitaratu zen.

Proiektuak helburu hauek ditu:

- Lursailen artean aprobetxamenduak transferitu ahal izatea, lursailen okupazio- eta eraikigarritasun-

PROPUESTA DE ACUERDO

A la vista del proyecto de la 10ª modificación del Plan Parcial del Parque Tecnológico de Álava (Sector ST5, antiguo sector 11) referente a la transferencia de aprovechamientos, redactada por la arquitecta M.D.d.C.G. de LKS Ingeniería S. Coop. a iniciativa del Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologia Elkartegia S.A. que tuvo entrada en el registro del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz el 26 de marzo de 2018 se realizan las siguientes consideraciones:

El 11 de octubre de 1995 se publicó en el BOTHA la aprobación definitiva del Plan Parcial de Ordenación Urbana del Sector número 11 (Parque Tecnológico de Álava) Texto Refundido.

Este Plan Parcial ha sido modificado en 9 ocasiones, siendo publicada la aprobación definitiva de la última modificación en el BOTHA de 19 de octubre de 2009

Con este proyecto se persiguen los siguientes fines:

- Permitir la transferencia de aprovechamiento entre parcelas, incrementando los parámetros de

parametroak handituz (PARQUE TECNOLÓGICO DE ÁLAVA – ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA S.A. sozietatearen baimena duten transferentzia hitzarmenen kasuan), hargatik “Arabako Teknologia Parkea” ST-5 sektoreari esleitutako eraikigarritasun globala handitu beharrik gabe, eta euren aprobetxamenduaren zati bat utz lezaketen lursailen gutxieneko okupazio- eta eraikigarritasun-parametroak ezarrita.

-Gaur egun irabaziko aprobetxamendurako lursail gisa sailkatuta dauden PT3-1 eta PT3-3 lursailak Oinarrizko Azpiegituren Sistemari integratzea, egun duten erabilerari erantzunez (ureztatzeko baltsa eta edateko uraren biltegia).

- Aparkalekuen ratioa jardueren benetako beharretara egokitzea, PT4, PT5, PTi-1, PTi-2 eta PTi-3 eremuetan aparkaleku bakoitza 65 metro koadro eraikira (m²e) murriztuta.

- PT5 eremuko lursail batean eraikigarritasuna banatzeko aukera ematea, parkeko beste eremu batzuetan bezala.

Dosierraren tramitazioan mugarri hauek aipatu daitezke:

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotzi ordezkariaren 2020ko azaroaren 13ko probidentziaren bidez onartu zen tramitera 10. aldaketa hau. Orobat, zirriborroa administrazio/organo hauei bidaltzeko eskatzen zen, beren eskumenen barruko txostena egin dezaten: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia, Uraren Euskal Agentzia, eta Gasteizko Udalaren

ocupación y edificabilidad máximas de las parcelas, en el caso de acuerdo de transferencia que cuente con la aprobación de la sociedad PARQUE TECNOLÓGICO DE ÁLAVA – ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA S.A., sin incrementar la edificabilidad global asignada al Sector ST-5 Parque Tecnológico de Álava y estableciendo los parámetros de ocupación y edificabilidad mínimas de las parcelas que podrían ceder parte de su aprovechamiento.

- Integrar las parcelas PT3-1 y PT3-3 actualmente calificadas como Parcelas con Aprovechamiento Lucrativo, en el Sistema de Asentamientos de Infraestructuras Básicas respondiendo a su actual finalidad (balsa de riego y depósito de agua potable).

- Adecuar el ratio de aparcamientos a las necesidades reales de las actividades, reduciendo el mismo a 1 plaza / 65m²c en las zonas PT4, PT5, PTi-1, PTi-2 y PTi-3.

- Permitir la subdivisión de la edificación en una misma parcela en la zona PT5, de forma similar a otras zonas del Parque.

En cuanto a la tramitación seguida por este expediente, resultan reseñables los siguientes hitos:

Mediante providencia de la Concejala Delegada de Territorio y Acción por el Clima de 13 de noviembre de 2020 se admitió a trámite esta 10ª modificación. En la misma, se determinaba también la remisión del borrador para que emitan del informe correspondiente de acuerdo a sus competencias a las siguientes administraciones/órganos: Dirección de Administración Ambiental de Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, Dirección General de Aviación Civil,

Berdintasun Zerbitzua zein Euskara Zerbitzua.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak errekerimendua egin zuelarik, 2021eko urtarrilaren 19an aurkeztu zen ingurumen-ebaluazio estrategikoa.

2021eko martxoaren 16an, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zen zortasun aeronautikoei zegokienez; bertan gogorazten zen edozein eraikuntza, instalazio edo landaketa egitekotan aurretik Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren aldeko erabakia beharko dela, eremu osoa zortasun aeronautikoei eragindako zona eta espazioetan baitago.

2021eko martxoaren 30ean, Uraren Euskal Agentziaren eta Konfederazio Hidrografikoaren txostenak sartu ziren Udalaren Erregistroan. Agentziaren txostenean ondorioztatzen zenez, plan partzialaren aldaketa honek barne hartu behar zuen "azterketa hidrauliko bat, justifikatzeko PT5B zonan hutsik dagoen lursailean aurreikusitako hirigintza-garapenak —ibilgu-poliziaren gunean baitaude— uholdeak izan litezkeen eremuetatik kanpo daudela". Horri erantzuteko, Erretana errekaen azterlan hidraulikoa txertatu da dokumentuaren azken bertsioan, aurretik aipatu den bezala.

Apirilaren 20an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena sartu zen Udalaren Erregistroan, zeinaren bidez ingurumen-txosten estrategikoa egiten baita. Horretan xedatzen zenez, "ez da aurreikusten Arabako Teknologia Parkearen plan

Agencia Vasca del Agua, Servicio Municipal de Igualdad y de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

La solicitud de Evaluación Ambiental Estratégica Simplificada, una vez atendido el requerimiento efectuado por la Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco, fue presentada el 19 de enero de 2021.

El 16 de marzo de 2021 se recibió el informe favorable de la Dirección General de Aviación Civil a la presente modificación en lo referente a las servidumbres aeronáuticas, con el recordatorio de que la ejecución de cualquier construcción, instalación o plantación requerirá acuerdo favorable previo de la agencia Estatal de Seguridad Aérea al encontrarse todo el ámbito de estudio en zonas y espacios afectados por servidumbres aeronáuticas.

Con fecha 30 de marzo de 2021 tuvieron entrada en el registro del ayuntamiento los informes de la Agencia Vasca del Agua y de la Confederación Hidrográfica. En el correspondiente a la citada Agencia se establecía como conclusión que esta modificación del Plan Parcial debía incorporar "un análisis hidráulico que justifique que los desarrollos urbanísticos previstos en la parcela vacante de la zona PT5B, que se sitúan dentro de la zona de policía de cauces, se realizarán fuera de zona inundable". Para atender esto, en la versión final del documento, tal y como se ha referido previamente, se incluye el Estudio Hidráulico del arroyo Retana.

La Resolución del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, por la que se formula el informe ambiental estratégico tuvo entrada el 20 de abril en el registro del Ayuntamiento. En la misma se determinaba que "no se prevé que la 10ª modificación del Plan Parcial del parque tecnológico de Álava (...)

partzialaren 10. aldaketak (...) ingurumenaren kontrako kalte azpimarragarriak egingo duenik", baldin eta ebazpenean jasotako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, baita sustatzaileak proposatutakoak ere, haiekin bateragarri izanez gero. Horrenbestez, ondorioztatzen du ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egitea.

2021eko maiatzaren 12an, eragin soziolinguistikoa buruzko txostena jaso zen, zeinean ondorioztatzen baita aurkeztutako aldaketak ez duela hizkuntza-eragin esanguratsurik izango eta, beraz, ez dela eragin horren azterlanik egin behar.

2021eko maiatzaren 14an, berriz, aldaketaren generoaren arabera eraginari buruzko txostena jaso zen, zeinak zehazten baitu aztertutako aldaketak ez duela eragin negatiborik izango generoari dagokionez.

2021eko uztailaren 22an Plangintzarako Zerbitzuak eta Hirigintza Sailak aldeko txosten teknikoa eman zutelarik, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion Arabako Teknologia Parkearen (ST5 sektorea, garai bateko 11. sektorea) plan partzialaren 10. aldaketari, 2021eko uztailaren 30ean egindako ohiko bilkuran.

Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen, orobat, 20 eguneko jendaurrean jartzea, aztertu eta alegazioak aurkezterik izan zedin; xedatze-zatia abuztuaren 11ko ALHAOn (90. zk.) argitaratu zen, eta abuztuaren 25eko El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan. Aldaketaren jendaurreko erakustaldian ez zen alegaziorik aurkeztu. Lurraldea ukitzen zitzaizen administrazio-batzarrei ere jakinarazi zitzaizen

vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente", siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras establecidas en la misma Resolución y las planteadas por el promotor que sean compatibles con estas. Por tanto, concluye, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria.

El 12 de mayo de 2021 se recibió el informe relativo al impacto sociolingüístico en el que se concluye que la modificación presentada no produce ningún impacto lingüístico relevante y por ello, no es necesaria la realización del estudio de este impacto.

El informe relativo al impacto en función del género de esta modificación se recibió el 14 de mayo de 2021, en el que se determinaba que la modificación analizada no tendrá un impacto negativo en función del género.

Tras el informe técnico favorable de 22 de julio de 2021 del Servicio de Planeamiento y del Departamento de Urbanismo, la Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada el 30 de julio de 2021 aprobó inicialmente la décima modificación del Plan Parcial del Parque Tecnológico de Álava (sector ST5, antiguo sector 11).

En ese acuerdo de la Junta de Gobierno Local se determinó someterlo a información pública durante 20 días para que pudiese ser examinado y se presentasen las alegaciones procedentes, siendo publicada la parte dispositiva el 11 de agosto en el BOTHA nº 90 y el 25 de agosto en el Correo (Edición Álava) y el Diario de Noticias de Álava. Durante este periodo de exposición pública de la presente modificación no se ha recibido ninguna alegación

erabakiaren edukia, hogeit hamar eguneko epean txostena egin zezaten. Epea igaro delarik, ez da horren inguruko erantzunik edo ebazpenik izan.

2021eko urriaren 25ean, Uraren Euskal Agentziaren eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostenak erregistratu ziren, biak hasierako onespeneren aldekoak.

Azkenik, 2021eko urriaren 27an, Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak txosten teknikoa egin zuen, aldaketa behin betiko onesteko proposatuz.

Behin betiko onespenera emateko proposatu den agiriaren bertsioa bederatzigarrena da, eta 2021eko uztailaren 7an aurkeztu zen Udalaren Erregistroan; uztailaren 22an txertatutako II. eranskinarekin osatu zen. Oroitidazkian alderdi hauek jaso dira: xedea, ekimena, hartutako konponbidearen deskribapena eta justifikazioa, sektore-eraginak, aldatu nahi den indarreko hirigintza-araudia, eta aldatutakoa. Dokumentazio grafikoa, eragin akustikoari buruzko azterlanak, egikaritze-laburpena, ingurumenaren gaineko inpaktuaren azterlanak —2020ko apirilaren 20an egin— eta Erretana errearen azterlan hidraulikoa ere erantsi dira. Hasiera batean onetsitako agiri bera da.

Aipatutako aurrekariak kontuan izanik, hauek dira kontuan izan beharreko lege-arauak:

Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 67. artikulua ildotik, plan partzialek xedatzen dute plan orokorrak edo lurzoru urbanizagarria sektoretan banatzeko planak mugatzen duen sektorearen

También se notificó el contenido del acuerdo a las Juntas Administrativas territorialmente afectadas para emisión de informe en el plazo de veinte días. Transcurrido este, no se ha producido contestación o resolución.

El 25 de octubre de 2021 se registró el informe de la Agencia Vasca del Agua junto con el de la Confederación Hidrográfica del Ebro, favorables a la aprobación inicial.

Finalmente, el 27 de octubre de 2021 se ha emitido informe técnico por el Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística proponiendo la aprobación definitiva de la presente modificación.

Esta versión del documento propuesta para la aprobación definitiva es la novena y se presentó el 7 de julio de 2021 en el registro del Ayuntamiento, siendo completada con el anexo II incorporado el 22 de julio. En la memoria de la misma, se ha dejado constancia del objeto, la iniciativa, descripción y justificación de la solución adoptada, las afecciones sectoriales, la normativa urbanística vigente a modificar y la modificada. Se adjunta la documentación gráfica, el estudio de impacto acústico, el resumen ejecutivo, el Informe Ambiental Estratégico emitido el 20 de abril de 2020 y el Estudio Hidráulico del Arroyo de Retana. Este documento es el mismo que el aprobado inicialmente.

Teniendo en cuenta los antecedentes expuestos, la regulación legal a considerar es la siguiente:

De acuerdo al artículo 67 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006 de Suelo y Urbanismo, los planes parciales establecen la ordenación pormenorizada de un sector delimitado por el Plan General o por el correspondiente plan de

antolamendu xehatua. Legearen 68. artikuluan, berriz, plan partzialen edukia arautzen da, baita zein agiritan formalizatu behar den ere.

Aipatutako legearen 95. eta 96. artikuluek jasotzen dituzte plan partzialen tramitazioari eta onespenerari buruzkoak, baita 46/2020 Dekretuaren 31. artikulua ere.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili behar da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili behar da.

Horrekin lotuta, 46/2020 Dekretuaren 34. artikulua arabera, hirigintza-antolamenduko planen edukia aldatu ahal izango da planak berrikusiz, edo planetan aldakuntzak eginez; 36.1 artikulua eranstean duenez, plangintza berrikusi edo aldatzeko, dekretuan plangintza onesteko aurreikusitako prozedura berari jarraituko zaio, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta edo sinplifikatua barne, ingurumen-ebaluazioari buruzko araudiaren arabera dagokiona.

Behin betiko onspena emateko eskumenari dagokionez, Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onspena ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

sectorización en suelo urbanizable. En el artículo 68 de la misma se regula el contenido de los planes parciales así como la documentación en la que se formaliza su contenido.

La tramitación y aprobación de los Planes Parciales está recogida, por un lado, en los artículos 95 y 96 de la ley citada y, por otro, en el artículo 31 del Decreto 46/2020.

El artículo 103 de la misma Ley 2/2006 dispone que toda reconsideración del contenido de los planes urbanísticos requerirá su modificación señalando el artículo 104 que la revisión y cualquier modificación de las determinaciones de los planes urbanísticos deberá realizarse a través de la misma clase de plan y observando el mismo procedimiento seguido para la aprobación de dichas determinaciones.

En este sentido, el Decreto 46/2020 en su artículo 34 señala que la alteración del contenido de los planes de ordenación urbanística podrá llevarse a cabo mediante la revisión de los mismos, o su modificación, a lo que añade en el artículo 36.1 que la revisión y modificación del planeamiento seguirá el mismo procedimiento que el previsto en este decreto para su aprobación, incluyendo la evaluación ambiental estratégica ordinaria o simplificada, según proceda, a tenor de la normativa de evaluación ambiental.

En cuanto a la competencia para la aprobación definitiva, el artículo 123.1.i) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local atribuye al Pleno la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorriz, dosierraren parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeak 122.4.a) artikuluan — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak erantsia— aitorzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

ERABAKIA

1.- Behin betiko onestea Arabako Teknologia Parkearen (ST5 sektorea, garai bateko 11. sektorea) plan partzialaren hamargarren aldaketa, zeina LKS Ingeniería S. Coop. enpresako kide M.D.d.C.G. arkitektoak idatzi baitu, Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologia Elkartegia S.Aren ekimenez.

2.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3.- Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorriz.

Lurralde batzordeak **aldeko iritzia** eman du, honako bozketa honen ondorioz:

De conformidad con la modificación del planeamiento propuesta, cuya conveniencia y oportunidad se justifican en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vista la regulación a la que se ha hecho referencia, esta Comisión de Territorio en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 122.4.a) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, eleva al Pleno de la Corporación el siguiente

ACUERDO

1.- Aprobar definitivamente la décima modificación del Plan Parcial del Parque Tecnológico de Álava (Sector ST5, antiguo sector 11) redactada por la arquitecta M.D.d.C.G. de LKS Ingeniería S. Coop. a iniciativa del Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologia Elkartegia S.A.

2.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava en los términos previstos en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

3.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación, conforme al artículo 46.1 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

La Comisión de Territorio dictamina **favorablemente** la propuesta presentada como resultado de la siguiente votación:

OSOKO BOZKETA

ARABAKO TEKNOLOGIA
PARKEAREN (ST5 SEKTOREA,
GARAI BATEKO 11. SEKTOREA)
PLAN PARTZIALAREN
HAMARGARREN ALDAKETA
BEHIN BETIKO ONESPENA
EMATEA, aurkeztutako erabaki-
proposamenaren ildotik.

BOZKETA HONEN ONDORIOZ
ONETSIA:

ALDE (12):

Ruiz de Escudero jn. (EAJ/PNV)
Fernández de Landa and. (EAJ/PNV)
Oregi and. (EAJ/PNV)
Fernández de Landa jn. (EAJ/PNV)
Rodriguez jn. (PSE-EE)
Canto and. (PSE-EE)
Salazar jn. (PSE-EE)
Gonzalez jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Villalba and. (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ruiz de Larramendi (EH BILDU
GASTEIZ)
Garnica jn. (PP)
Iturricha jn. (PP)

ABSTENTZIOAK (2):

Fernández jn. (ELKARREKIN
VITORIA-GASTEIZ)
Zubiaurre and. (EKARREKIN
VITORIA-GASTEIZ)

Hori dela eta, Udaltzari
honako erabaki hau hartzea
proposatzen zaio:

ERABAKIA

1.- Behin betiko onestea
Arabako Teknologia Parkearen (ST5
sektorea, garai bateko 11. sektorea)
plan partzialaren hamargarren
aldaketa, zeina LKS Ingeniería S.
Coop. enpresako kide M.D.d.C.G.
arkitektoak idatzi baitu, Parque
Tecnológico de Álava-Arabako
Teknologi Elkartegia SAre

VOTACIÓN DE TOTALIDAD

APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA
DÉCIMA MODIFICACIÓN DEL PLAN
PARCIAL DEL PARQUE
TECNOLÓGICO DE ÁLAVA
(SECTOR ST5, ANTIGUO SECTOR
11), en los términos de la propuesta
de acuerdo presentada.

APROBADA CON LOS
SIGUIENTES VOTOS:

A FAVOR (12):

Sr. Ruiz de Escudero (EAJ/PNV)
Sra. Fernández de Landa (EAJ/PNV)
Sra. Oregi (EAJ/PNV)
Sr. Fernández de Landa (EAJ/PNV)
Sr. Rodriguez (PSE-EE)
Sra. Canto (PSE-EE)
Sr. Salazar (PSE-EE)
Sr. González (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Villalba (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ruiz de Larramendi (EH BILDU
GASTEIZ)
Sr. Garnica (PP)
Sr. Iturricha (PP)

ABSTENCIÓN (2):

Sr. Fernández (ELKARREKIN
VITORIA-GASTEIZ)
Sra. Zubiaurre (ELKARREKIN
VITORIA-GASTEIZ)

En virtud de lo anterior, se
propone al Pleno la adopción del
siguiente acuerdo:

ACUERDO

1.- Aprobar definitivamente la
décima modificación del Plan Parcial
del Parque Tecnológico de Álava
(Sector ST5, antiguo sector 11)
redactada por la arquitecta
M.D.d.C.G. de LKS Ingeniería S.
Coop. a iniciativa del Parque
Tecnológico de Álava- Arabako

ekimenez.

Teknologi Elkartegia S.A.

2.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

2.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava en los términos previstos en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

3.- Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorriz.

3.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación, conforme al artículo 46.1 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

.- ALKATE JAUNA / SR. ALCALDE.- Se somete a votación la APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA DÉCIMA MODIFICACIÓN DEL PLAN PARCIAL DEL PARQUE TECNOLÓGICO DE ÁLAVA (SECTOR ST5, ANTIGUO SECTOR 11).

Aurreko irizpena irakurri eta erabaki-proposamena bozkatuta, **ONETSI EGIN DA**, emaitza honekin:

Leído el precedente dictamen y sometida la Propuesta de Acuerdo a votación, **QUEDA APROBADA** con el siguiente resultado:

- ALDE:

Hogeita lau (24)
(EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU
GASTEIZ eta PP)

- A FAVOR:

Veinticuatro (24)
(EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU
GASTEIZ y PP)

- ABSTENTZIOAK:

Hiru (3) boto
(ELKARREKIN VITORIA-
GASTEIZ)

- ABSTENCIONES:

Tres (3) votos
(ELKARREKIN VITORIA-
GASTEIZ)

Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:

https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.PLENOS.2021112601?ts=682

3. GAIA **ASUNTO Nº 3**

**GAIA: BEHIN BETIKO ONESTEA
GASTEIZKO HAPOKO 3.1/1-3.1/2
EREMUKO "KUARTELEN ETXADIA"
BARNE BERRIKUNTZARAKO 7.
PLAN BEREZIAREN 5. ALDAKETA**

**ASUNTO: APROBACIÓN
DEFINITIVA DE LA 5ª
MODIFICACIÓN DEL PLAN
ESPECIAL Nº7 MANZANA DE LOS
CUARTELES DEL ÁMBITO 3.1/1-
3.1/2 DEL PGOU DE VITORIA-
GASTEIZ**

ERABAKI-PROPOSAMENA

3.1/1-3.1/2 eremuko "Kuartelen Etxadia" Barne Berrikuntzarako 7. Plan Bereziaren 5. aldaketarako proiektua ikusi da. Arabako Foru Aldundiak sustatu du hori, eta 2021eko maiatzaren 28an sartu zen Gasteizko Udalaren Erregistroan.

Udalbatzak 1990ko urtarrilaren 19ko osoko bilkuran onetsi zuen behin betiko "Kuartelen Etxadia" Barne Berrikuntzarako 7. Plan Berezia, eta gerora lau xedapen-aldaketa izan ditu; horietako azkena Udalbatzak 2012ko uztailaren 6an egindako osoko bilkuran onetsi zen.

Aldaketaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Artxiboaren eraikinaren barne aldakuntza partziala egin nahi du Arabako Foru Aldundiak, erabilera berriak sartzearen. Zehazki, 58 poligonoko 466 katastro-lursailean — egungo Arabako Lurralde Historikoko Artxiboa, Plan Berezian "2 eraikin berria" gisa deskribatua— baimendutako erabilerak aldatu nahi ditu, eta erabilera xehatu hauek gehitu: hezkuntza, kultura-elkartek,

PROPUESTA DE ACUERDO

A la vista del proyecto de la 5ª modificación del Plan Especial nº7 Manzana de los Cuarteles del ámbito 3.1/1-3.1/2 promovida por la Diputación Foral de Álava y que tuvo entrada en el registro del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz el 28 de mayo de 2021 se realizan las siguientes consideraciones:

El Plan Especial de Reforma Interior nº 7 "Manzana de los Cuarteles" fue aprobado definitivamente por el Pleno de este Ayuntamiento el 19 de enero de 1990 en sesión ordinaria y posteriormente ha sufrido cuatro modificaciones puntuales, habiéndose realizado la aprobación definitiva de la última de ellas en sesión ordinaria del Pleno el 6 julio de 2012.

Por medio de esta modificación la Diputación Foral de Álava quiere llevar a cabo la reforma interior parcial del edificio del Archivo del Territorio Histórico de Álava, introduciendo nuevos usos. En concreto, quiere modificar los usos permitidos dentro de la parcela catastral 466 del polígono 58, actual Archivo del Territorio Histórico de Álava, descrito en el Plan Especial como "Nuevo Edificio 2" e incorporar

osagarriak eta horiei zerbitzu emateko jarduerak.

Dosierraren tramitazioan mugarri hauek aipatu daitezke:

Esan bezala, aldaketaren proiektua 2021eko maiatzaren 28an sartu zen Gasteizko Udalaren Erregistroan.

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotzi ordezkariaren 2021eko ekainaren 10eko probidentziaren bidez onartu zen tramitera aldaketa hau. Orobat, ingurumen-organoari ingurumen-ebaluazio sinplifikatua hasteko eskaera bidaltzeko erabakitzen zuen, baita Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari proiektua bidaltzeko ere, arauz dagozkion eskumenei buruzko nahitaezko txostena egin zezan.

2021eko ekainaren 22an, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren eskabidea eta Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena aurkeztu ziren.

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2021eko ekainaren 14an egindako txosten teknikoan ondorioztatzen zen bidezkoa zela hasierako onespina emateko dosierra tramitatzea, aurreko paragrafoan zehaztutako tramiteak egin ondoren.

2021eko uztailaren 2an, aldaketaren generoaren araberako eraginari buruzko txostena jaso zen, non zehazten baitzen aldaketak eragin positiboa izango zuela "eraikinaren kudeaketak eta erabilera berria aurreikusten duen proiektuak genero-

los siguientes usos pormenorizados: educativo, cultural – asociativo y complementarios y servidores del anterior.

En cuanto a la tramitación seguida por este expediente, resultan reseñables los siguientes hitos:

El proyecto de esta modificación tuvo entrada, tal y como se ha indicado previamente, en el registro del Ayuntamiento de Vitoria - Gasteiz el 28 de mayo de 2021.

Mediante providencia de la Concejala Delegada de Territorio y Acción por el Clima de 10 de junio de 2021 se admitió a trámite esta Modificación. En la misma, se disponía también la remisión, por un lado, al órgano ambiental la solicitud de inicio de la evaluación ambiental estratégica simplificada y, por otro, a la Dirección General de Aviación Civil del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana el proyecto para que emita el informe preceptivo en relación a las competencias que normativamente le son propias.

Seguidamente, el 22 de junio de 2021, se presentó tanto la solicitud de evaluación ambiental estratégica simplificada como la del informe de la Dirección General de Aviación Civil.

En el informe técnico del Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística de 14 de junio de 2021 se concluía que procedía tramitar el expediente para su aprobación inicial, una vez realizados los trámites especificados párrafo precedente.

El 2 de julio de 2021 se recepcionó el informe relativo al impacto en función del género de esta modificación, en el se indicaba que la modificación analizada tendrá un impacto positivo "si la gestión que se haga del edificio, si el proyecto que contempla

ikuspegia kontuan hartzen bazuten".

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an egindako bilkuran erabaki zuen hasierako onespena ematea plan bereziaren bosgarren aldaketa horri, baina ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzak baldintzatuta.

Erabaki horretan, dosierra 20 egunez jendaurrean jartzea ere xedatu zen, horrek eragiten diola uste duen orok aztertu ahal izan dezan, baita egokitzat dituen alegazioak edo oharrak aurkeztu ere. Horretarako, xedapen-zatia 2021eko uztailaren 9an argitaratu zen El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan, eta 2021eko uztailaren 14an ALHAOn (78. zk), eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

2021eko uztailaren 30ean, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena sartu zen erregistroan, zeinaren bidez ingurumen-txosten estrategikoa egiten baita. Bertan xedatzen denez, "ez da aurreikusten "kuartelen etxadia" 7. plan bereziaren 5. aldatetako ingurumenaren kontrako kalte azpimarragarriak egingo duenik baldin eta ebazpenean jasotako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, baita sustatzaileak proposatutakoak ere, haiekin bateragarri izanez gero. Horrenbestez, ondorioztatzen du ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egitea.

2021eko irailaren 3an, eragin soziolinguistikoari buruzko txostena sartu zen Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan, eta bertan ondorioztatzen da ez dela eragin linguistikoaren ebaluazioa egin beharrik.

el nuevo uso, incorpora el enfoque de género".

En sesión ordinaria de la Junta de Gobierno Local celebrada el 2 de julio de 2021 se acordó aprobar inicialmente esta quinta modificación del Plan Especial, condicionada al resultado del informe ambiental estratégico.

En ese acuerdo, asimismo, se disponía someter el expediente a información pública durante 20 días para que pueda ser examinado por cuantas personas se consideren afectadas y formular cuantas alegaciones y observaciones que se estimen pertinentes. Para ello, la parte dispositiva fue publicada el 9 de julio de 2021 en El Correo (Edición Álava) y en Diario de Noticias de Álava y el 14 de julio de 2021 en el BOTHA número 78, no recibándose ninguna alegación en ese periodo.

El 30 de julio de 2021 se registró la Resolución del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, por la que se formula el correspondiente informe ambiental estratégico. En ella se determinaba que "no se prevé que la 5ª modificación de Plan Especial nº 7 Manzana de los cuarteles vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente" siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras establecidas en la misma Resolución y las planteadas por el promotor que sean compatibles con estas. Por tanto, concluye, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria.

El informe relativo al impacto sociolingüístico tuvo entrada el 3 de septiembre de 2021 en el Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística, cuya conclusión es la innecesariedad de la realización de la evaluación de

2021eko irailaren 29an, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zen, kuartelen etxadiaren 7. plan bereziaren bosgarren aldaketaren zortasun aeronautikoei zegokienez, baina baldintzatua zegoen: alde batetik, proposatutako eraikuntzak edo objektu finkoek zortasun aeronautikoak ez urratzea, eta, bestetik gogoraraztea edozein eraikuntza, instalazio edo landaketa egiteko beharrezkoa izango dela alde aurretik Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren aldeko erabakia izatea, eremu guztia zortasun aeronautikoei eragindako gune eta espazioetan egoteagatik.

2021eko urriaren 27an, Uraren Euskal Agentziaren txostena eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarena erregistratu ziren, biak aldaketaren aldekoak, jabari publiko hidraulikoa eta korronteen erregimena babesteari dagokionez.

2021eko azaroaren 4an agiriaren azken bertsioa sartu zen udaletxeko erregistroan. Proiektu horretan jasota geratu dira idazkiaren xedea, ekimena, eta idazketa, jarduera-eremua, hirigintza-aurrekariak eta -baldintzak, sektore-baldintzak, aukeratutako antolamenduaren deskribapena eta justifikazioa. Halaber, dokumentazio grafikoa, laburpen betearazlea, eragin akustikoari buruzko azterlana, generoaren araberako eragin txostena eta ingurumen-ebaluazioa ere erantsi dira.

5. aldaketa behin betiko onesteko dokumentu hau hasierako onespina jaso zuenaren berbera da, baina hainbat erreferentzia eguneratuta, hain

impacto lingüístico.

El 29 de ese mismo mes se recibió el informe favorable de Dirección General de Aviación Civil a la quinta modificación del plan especial nº 7 Manzana de los Cuarteles en lo referente a las servidumbres aeronáuticas, con la condición, por un lado, de que las construcción propuestas u objetos fijos no vulneren las servidumbres aeronáuticas y con el recordatorio, por otro, de que la ejecución de cualquier construcción, instalación o plantación requerirá acuerdo favorable previo de la agencia Estatal de Seguridad Aérea al encontrarse todo el ámbito de estudio en zonas y espacios afectados por servidumbres aeronáuticas.

Con fecha 27 de octubre de 2021 se registró la entrada del informe de la Agencia Vasca del Agua junto con el de la Confederación Hidrográfica del Ebro, favorables a esta modificación en lo referente a la protección del dominio público hidráulico y el régimen de corrientes.

La última versión del documento se presentó en el registro del Ayuntamiento el 4 de noviembre de 2021. En este proyecto se deja constancia de objeto, de la iniciativa y redacción del documento, del ámbito de actuación, de los antecedentes y condicionantes urbanísticos, de los condicionantes sectoriales, de la descripción y justificación de la ordenación adoptada. Asimismo, se adjunta la documentación gráfica, el resumen ejecutivo, el estudio de impacto acústico, el informe de impacto en función del género y la evaluación ambiental.

Este documento para la aprobación definitiva de la 5ª modificación es el mismo que el aprobado inicialmente con la inclusión en su texto de

zuzen ere jarraitutako tramitazioari eta egokitzapen formalei dagozkienak, baina alderdi horiek ez dira funtsezko aldaketatzat jotzen.

Azkenik, 2021eko azaroaren 4an, aldeko txosten teknikoa egin dute Hirigintza Sailak eta Plangintzarako Zerbitzuak, eta behin betiko onestea proposatzen dute.

Aipatutako aurrekariak kontuan izanik, hauek dira kontuan izan beharreko lege-arauak:

46/2020 Dekretuaren 32.1 eta 31. artikuluetan eta Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia,

Plan partzial eta berezien onespina eta tramitazioa 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan eta 46/2020 Dekretuaren 32.1 eta 31. artikuluetan xedatzen da.

46/2020 Dekretuaren 31.3 artikuluan zehazten denez, "bai ekimen partikularreko plan partzialen kasuan, bai administrazio publiko eskudunak ofizioz egiten dituenen kasuan, ingurumen-txosten estrategikoa egin eta ingurumen-organoak hura jaso aurretik, hasierako onarpena eman ahal izango zaie plan partzialei, bai eta jendaurrean jartzeko izapidea bete dela egiaztatu ere". Halakoetan, plana hasieran onartzeko erabakiak adieraziko duonarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan dagoela.

Aipatutako arau horien arabera, plan bereziak plan partzialerako ezarritakoaren arabera egin eta

referencias actualizadas a la tramitación seguida y adaptaciones de tipo formal, cuestiones que no son susceptibles de ser consideradas una modificación sustancial del mismo.

Finalmente, el 4 de noviembre de 2021 se ha emitido informe técnico favorable del Servicio de Planeamiento y del Departamento de Urbanismo proponiendo la aprobación definitiva.

Teniendo en cuenta antecedentes expuestos, la regulación legal a considerar es la siguiente:

En cuanto al ámbito y contenido de los Planes Especiales, está establecido en los artículos 32.1 y 31 del Decreto 46/2020 y 69 y siguientes de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

La tramitación y aprobación de Planes Parciales y Especiales está recogida, por un lado, en la Ley 2/2006 en los artículos 95, 96 y 97 y, por otro, en los artículos 31 y 32 del Decreto 46/2020.

En el artículo 31.3 del Decreto 46/2020 se precisa que "tanto en el supuesto de plan parcial de iniciativa particular como en el que se formula de oficio por parte de la Administración Pública competente, la aprobación inicial y la verificación del pertinente trámite de información pública podrán ser realizadas antes de la emisión y recepción del informe ambiental estratégico por parte del órgano ambiental. En tal caso, el citado acuerdo de aprobación inicial expresará que se adopta de manera condicionada a lo que resulte del informe ambiental estratégico.

En ambas normativas citadas, se indica que los planes especiales se formularán, tramitarán y aprobarán

onetsiko dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

